



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ESKAINITZA INMOBILIARIOA 2008KO 1. HIRUHILEKOA

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Etxebizitza eta Gizarte
Gaietako Saila

ESKAINITZA INMOBILIARIOREN estatistika

2008ko 1. hiruhilekoa

2008ko ekaina



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Orrialdea

1. SARRERA	2
2. ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK	6
2.1. PREZIOAK ETA ERRENTAK	6
2.1.1. <i>Salgai dauden etxebizitzak</i>	6
2.1.2. <i>Alokatzeko etxebizitzak</i>	11
2.2. ETXEBIZITZA KOPURUA	12
3. SALGAI JARRITAKO ETXEBIZITZEN ESKAINTZA	17
3.1. SALGAI JARRITAKO ETXEBIZITZA BERRIAK	17
3.1.1. <i>Salgai jarritako etxebizitza berriak prezioen arabera</i>	17
3.1.2. <i>Salgai dauden etxebizitza berrien kuantifikazioa eta ezaugarriak</i>	24
3.1.3. <i>Etxebizitzak eskaini dituzten sustapenen ezaugarri orokorrak</i>	28
3.2. SALGAI DAUDEN BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZAK	30
3.2.1. <i>Salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzen prezioak</i>	30
3.2.2. <i>Kuantifikazioa eta ezaugarriak</i>	34
4. ALOKATZEKO ETXEBIZITZAK	37
4.1. ALOKATZEKO ETXEBIZITZA BABESTUAK	37
4.1.1. <i>Alokatzeko etxebizitza babestuak errentaren arabera</i>	37
4.1.2. <i>Kuantifikazioa eta ezaugarriak</i>	38
4.2. ALOKATZEKO ETXEBIZITZA LIBREAK	43
4.2.1. <i>Alokatzeko etxebizitza libreak errenten arabera</i>	43
4.2.2. <i>Kuantifikazioa eta ezaugarriak</i>	44
5. ETXEBIZITZEN ESKAINTZA ESPARRU GEOGRAFIKOKA	47
5.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRI LIBREAK	47
5.2. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BABESTU BERRIAK	49
5.3. SALGAI DAUDEN BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZAK	51
5.4. ALOKAIKU LIBREKO ETXEBIZITZAK	54
5.5. ALOKAIKU BABESTUKO ETXEBIZITZAK	55
6. GARAJE, TRASTELEKU ETA LOKALEN ESKAINTZA	58
6.1. GARAJEEN ESKAINTZA	58



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

6.1.1. <i>Garaje libreak</i>	58
6.1.2. <i>Garaje babestuak</i>	59
6.2. TRASTELEKUEN ESKAINTZA	60
6.3. MERKATARITZA LOKALEN ESKAINTZA	61
6.3.1. <i>Lokal libreak</i>	61
6.3.2. <i>Lokal babestuak</i>	62
7. MERKATU INMOBILIARIOAREN DINAMIKA ETA PERSPEKTIBAK	65
7.1. EGUNGO DINAMIKA.....	65
7.1.1. <i>Merkatuaren egoeraren kalifikazioa</i>	65
7.1.2. <i>Salmenten bilakaera eta materializazio-epeak</i>	66
7.1.3. <i>Merkatuko dinamikan eragina duten faktoreak</i>	69
7.2. PERSPEKTIBAK.....	70
7.2.1. <i>Salmenten bilakaeraren aurreikuspena</i>	70
7.2.2. <i>Prezioen bilakaeraren aurreikuspena</i>	72
7.2.3. <i>Sustapen berriak hasteko aurreikuspenak</i>	73
A. ERANSKINA. ESTATISTIKA TAULAK EREMU FUNTZIONAL, HIRIBURUETAKO ZONA ETA UDALERRI NAGUSIEN ARABERA	74



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

AURKIBIDEA

Orrialdea

4.1. taula	Alokatzeko etxebizitza babestuen errentak lurralde historikoka.....	37
4.2. taula	Alokatzeko etxebizitza babestuen banaketa errenta-tarteen arabera.....	38
4.3. taula	Alokatzeko etxebizitza babestuak lurralde historikoka	39
4.4. taula	Eskainitako etxebizitza babestuen banaketa azalera erabilgarriaren arabera	41
4.5. taula	Alokatzeko etxebizitza libreen errentak lurralde historikoka.....	43
4.6. taula	Alokatzeko etxebizitza libreen banaketa errenta-tarteen arabera	44
4.7. taula	Alokairu libreak eskainitako etxebizitzak lurralde historikoka.....	45
4.8. taula	Alokairu libreko etxebizitzak banaketa azalera-tarteen arabera.....	45
5.1. taula	Salgai dauden etxebizitza berri libreak eta prezioak esparru geografikoka.....	48
5.2. taula	Salgai dauden etxebizitza berri babestuak eta prezioak esparru geografikoka.....	51
5.3. taula	Salgai dauden etxebizitza erabiliak eta prezioak esparru geografikoka	52
5.4. taula	Alokatzeko etxebizitza libreak eta errentak esparru geografikoka.....	54
5.5. taula	Alokatzeko etxebizitza berri babestuak eta hileko errenta esparru geografikoka.....	55
6.1. taula	Salgai eta alokairuan dauden garajeen eskaintza eta prezioak.....	59
6.2. taula	Salgai eta alokairuan dauden garajeen eskaintza eta prezioak.....	60
6.3. taula	Salgai eta alokatzeko dauden trastelekuen eskaintza eta prezioak	60
6.4. taula	Salgai eta alokatzeko dauden trastelekuen eskaintza eta prezioak	61
6.5. taula	Salgai eta alokatzeko dauden merkataritza-lokalen eskaintza eta prezioak.....	62
6.6. taula	Salgai eta alokatzeko dauden merkataritza-lokalen eskaintza eta prezioak.....	63
7.1. taula	Merkatu inmobiliarioaren dinamismoaren indizeak* sustatzaileen eta HJAen arabera.....	66
7.2. taula	Salmenten bilakaeraren indizeak* aurreko hiruhilekoarekiko, sustatzaileen eta HJAen arabera	67
7.3. taula	Etxebizitzak saltzeko epeak.....	68
7.4. taula	Etxebizitzak saltzeko erritmoak.....	69
7.5. taula	Hainbat faktorek gaur egungo merkatuaren dinamikan duten eraginaren batez besteko indizeak.....	70
7.6. taula	Salmenten aurreikuspen-indizeak* datorren hiruhilekoan sustatzaileen eta HJAen arabera	71
7.7. taula	Etxebizitzak saltzeko prezioen bilakaeraren aurreikuspen-indizeak(*) urtebetara, sustatzaileen eta HJAen arabera	72
7.8. taula	Hurrengo hiruhilekoan etxebizitza-sustapen berrien eskaintza hasteko aurreikuspena. Baiezkoa erantzun duten sustatzaileen proportzioa (%).	73



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

A.1. taula.	Salgai jarritako etxebizitza libreak eta prezioak eremu funtzionalen arabera	75
A.2. taula	Salgai dauden etxebizitza erabiliak eta prezioak eremu funtzionalen arabera	75
A.3. taula	Alokatzeko erregimen libreko etxebizitzak eta errentak eremu funtzionalen arabera	76
A.4. taula	Salgai dauden etxebizitza berri libreak eta prezioak hiriburuka, zonen arabera	77
A.5. taula	Salgai dauden etxebizitza erabiliak eta errentak hiriburuka eta zonen arabera	78
A.6. taula	Alokatzeko etxebizitza erabiliak eta errentak hiriburuka eta zonen arabera	79
A.7. taula	Salgai dauden etxebizitza berri libreak eta prezioak udalerrri nagusietan.....	79
A.8. taula	Salgai dauden etxebizitza erabiliak eta prezioak udalerrri nagusien arabera	80
A.9. taula	Alokatzeko erregimen libreko etxebizitzak eta errentak udalerrri nagusien arabera.....	80
A.10. taula	Salgai dauden etxebizitza berri familiabakarrak esparru geografikoka.....	80



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Orrialdea

4.1. grafikoa	Alokairu babestuaren batez besteko errenten bilakaera lurralde historikoka.....	38
4.2. grafikoa	Eskainitako etxebizitza babestuen bilakaera edukitza-erregimenaren arabera	40
4.3. grafikoa	Eskainitako etxebizitza babestuen (salmentakoak eta alokairukoak batera hartuta) bilakaera babes-modalitatearen arabera.....	40
4.4. grafikoa	Etxebizitza babestuen azaleraren bilakaera.....	41
4.5. grafikoa	Alokairu libreko batez besteko errenten bilakaera lurralde historikoka	44
5.1. grafikoa	Etxebizitza berri librearen eskaintzaren banaketa esparru geografikoka	49
5.2. grafikoa	Etxebizitza berri libreen m ² -aren prezioen bilakaera esparruka	49
5.3. grafikoa	Etxebizitza erabilien m ² -aren prezioen bilakaera esparru geografikoka.....	53
5.4. grafikoa	Salgai dauden etxebizitzaren m ² -aren prezioak motaren arabera eta esparru geografikoka	53
6.1. Grafikoa.	Garaje libreen salmenta-prezioaren bilakaera lurralde historikoka	59
6.2. Grafikoa.	Lokal libreen m ² -aren prezioen bilakaera lurralde historikoka	62
7.1. Grafikoa.	Dinamismoaren indizeen bilakaera lurralde historikoka (batez besteko mugikorrek-4).....	65
7.2. grafikoa	Salmenten bilakaera aurreko hiruhilekoarekiko lurralde historikoka (batez besteko mugikorrek-4)	67
7.3. grafikoa	Etxebizitzak saltzeko eta alokatzeko hiruhilekoko erritmoa.....	69
7.4. grafikoa	Merkatuko dinamikan eragina duten faktoreak	70
7.5. grafikoa	Salmenten aurreikuspen-indizeen bilakaera	71

1. SARRERA



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

1. SARRERA

- ρ Eusko Jaurlaritzako Lurralde, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak aginduta, Ikei erakundeak egin duen 2008ko lehen hiruhilekoari dagokion EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko txostena aurkezten da jarraian.
- ρ Txosten hau lantzeko erabili den metodologia, etxebizitzak eskaini dituzten EAeko sustatzaileei eta higiezin jabetzako agenteei (HJA) egindako zenbait inkestatan oinarritu da. Sustatzaileen kolektiboan egindako prospekzioak, kasu honetan, etxebizitzaren eskaintza egiten duten 184 identifikatu ditu (bost etxebizitza baino gehiago dituzten sustapenak); 125 higiezin agenteri egin zaie kontsulta. **1.1. taulak** erakusten du laginek izandako banaketa geografikoa.
- ρ Inkesta honek, berau gauzatutako unean (apirilean) eskutan duen eskaintzaren kuantifikazioa zein kualifikazioa egiteko eskatzen dio eragile inmobiliario bakoitzari. Sustatzaileen kasuan, bestela ezin zitekeen moduan, etxebizitza berriez ari gara, eta HJAen kasuan, bai etxebizitza berriez (sustatzaileen bidez saldutakoez), baita erabilitakoez (partikularren bidez saldutakoez) ere. Horrez gain, merkatuaren egoerari buruzko eragileen balorazio-galderen sail bat ere gehitzen da.

1.1. taula Egindako inkesta eraginkorren lurraldekako banaketa

	SUSTATZAILEAK	INMOBILIARIAK
Araba	55	12
Gipuzkoa.....	54	50
Bizkaia.....	75	63
EAE.....	184	125

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa

- ρ Txostena irakurri aurretik egin beharreko oharren artean, prezioak, EAeko eskaintzen zati nagusia osatzen duten etxebizitza kolektiboak (*blokeetakoak*) dagozkienak direla gogorarazi behar da.
- ρ Denboran izandako bilakaerari dagokionez, txostenean, behatutako aldagaiak (etxebizitza kopurua edo prezioak azalera erabilgarriko) aurreko urteko hiruhileko berean izan zuen balioarekiko dituen aldaketak islatzen ditu bereziki, beti ere azken hiru hilabeteetan izandako bilakaera ere kontuan izanik.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- ρ Zentzu horretan, kontuan hartu behar da txosten osoan aurkeztutako datuak, 7. kapitulukoak izan ezik, 4. serieko batez besteko mugikorrek direla (hau da, azken lau hiruhilekoetako batez bestekoak). Metodo horren bidez, laginaren araberrako datuak islatzean gerta daitezkeen joera eta aldaketa bortitzak arindu nahi dira (bilakaerari buruzko grafikoetan jada kontuan hartzen zen elementu hori).
- ρ Etxebizitzen prezioei dagokienez, batez besteko prezio haztatuak direnez, beren bilakaera ondorengo faktoreen emaitza dela azpimarratu behar da¹: prezioak, prezio-maila bakoitzeko etxebizitza kopurua eta eskaintzaren kokapen geografikoa. Etxebizitzen batez besteko prezioetan eragina du, halaber, eskaintzen diren etxebizitzen batez besteko azaleraren bilakaerak eta, orokorrean, beren tipologia.
- ρ Zentzu honetan, eremu espazial jakin bateko prezio-aldaketak, batez bestekoen aldaketak izango balira bezala ulertu behar dira. Hau da, aurreko denboraldietan baino prezio baxuagoak ez dira eskaintzen diren etxebizitzen kostuaren prezio-jaiste orokor gisa ulertu behar derrigorrez; aitzitik, prezio txikiagoko etxebizitzen agerpen handiagoa duen eskaintza-egitura baten konfigurazioari dagozkiola uler liteke.
- ρ Baina hori bai, ahal den neurrian, etxebizitzen "saskiaren" osaeran izan diren aldaketek prezioen bilakaeraren interpretazioan eragin dezaketen distortsioa saihesteko, *eredu-etxebizitza* deitu den "produktu" homogeneoago baten jarraipena barne hartzen da. Honen definizioan parte hartzen duten eskakizunak hauek dira: berria, kolektiboa, erregimen librekoa, zuzenean sustatzaileak eskainia, akabera "normalekoa" eta 60 eta 90 m² bitarteko azalera duena. Akaberaren, merkaturatzeko moduen edo tipologiaren arabera eskaintzaren osaeran izandako aldaketek batez besteko prezio globalean izan dezaketen eragina (edo interferentzia) neutralizatzeko helburua du.

¹ Salmentako batez besteko prezioak, etxebizitza bakoitzari dagokiona zein metro koadroko prezioa, etxebizitza-mota bakoitzeko bolumenaren araberrako haztapena eginez kalkulatzten dira.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

1.2. taula Etxebizitzaren eskaintzaren adierazleen laburpena

MERKATU LIBREA	2007ko 1. hiruilekoa	2007ko 4. hiruilekoa	2008ko 1. hiruilekoa	
	Balio Absolutuak	Balio Absolutuak	Balio absolutuak	Urteko ald. %
1. ETXEBIZITZA BERRIA				
• Salgai jarritako etxebizitza kop. - EAE.....	3.853	4.329	4.625	20,0
• Prezioa/ m ² *-EAE.....	3.749,8	4.113,2	4.139,2	10,4
• Prezioa/ m ² *-Eredu-etxebizitza**EAE.....	3.166,7	3.221,4	3.315,7	4,7
2. ETXEBIZITZA ERABILIA				
• Salgai jarritako etxebizitza kop – EAE guztira.....	7.231	10.630	12.098	67,3
• Prezioa/ m ² *-EAE guztira.....	4.316,2	4.356,4	4.361,9	1,1
3. ALOKATZEKO ETXEBIZITZAK				
• Errenta/hilean *- EAE.....	824,5	890,2	918,9	11,4
4. MERKATUKO INDIZEAK****				
• Dinamismoa***.....	26,9	14,6	12,9	-14,0
• Salmenten aurreikuspena (hur. hiruhil.)***.....	69,1	49,2	45,7	-23,4
• Prezioen aurreikuspena (urte batera)***.....	55,5	35,2	33,4	-22,1
MERKATU BABESTUA	2007ko 1. hiruilekoa	2007ko 4. hiruilekoa	2008ko 1. hiruilekoa	
	Balio Absolutuak	Balio Absolutuak	Balio Absolutuak	Urteko ald. %
1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZAK				
• Etxebizitza kop. guztira.....	5.034	5.093	5.606	11,4
• Prezioa/m ² * EAE-.....	1.293,0	1.322,9	1.334,7	3,2
2. ALOKATZEKO ETXEBIZITZAK				
• Etxebizitza kop. guztira.....	1.613	1.513	1.800	11,6
• Etxebizitza sozialak.....	989	1.035	1.143	15,6
• Babes ofizialeko etxebizitzak.....	624	478	657	5,3
• Errenta/hilean*-Etxebizitza Soziala.....	140,3	131,7	128,0	-8,8
• Errenta/hilean*- BOE.....	363,6	325,3	341,6	-6,1

(*): Eurotan

(**): Eredu-etxebizitza: berria, kolektiboa, erregimen librekoa, zuzenean sustatzaileak eskainia, akabera "normalekoa" eta 60 eta 90 m² bitarteko azalera duena.

(***): 0 (geldialdi handiena) eta 100 (dinamismo handiena) bitarteko batez bestekoak.

(****): Indizeen urteko aldaketa kopuru absolutuetan.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruilekoa



2. ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

2. ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK

2.1. PREZIOAK ETA ERRENTAK

2.1.1. Salgai dauden etxebizitzak

a) Metro koadro erabilgarriaren prezioak

- ρ Etxebizitza berri libreen metro koadroaren batez besteko prezioa 4.300 €/m² izan da 2008ko lehen hiruhilekoan, hau da, azken urtean % 4,4ko hazkundera lortu da.
- ρ Hazkunde horri erreparatuz esan daiteke prezioen gorakada moteltzen ari dela, eta bereziki da nabarmena etxebizitza erabiliaren kasuan. Hain zuzen, bigarren eskuko etxebizitzaren merkatuan erregistratu den batez bestekoa 4.362 €/m² da, hau da, duela urte bat erregistratutako batez besteko prezioa baino % 1,1 gehiago.
- ρ Eraikuntza berriko etxebizitzaren sektoreari dagokionez, 2008ko lehen hiruhilekoan eskaintzan antzemandako etxebizitzaren batez bestekoa (4.139 €/m²), duela urtebete antzemandako batez bestekoa baino % 10 altuagoa da. Hala ere, ezin da ahaztu tasa horretan 2007 hasieran ezagutu zen hazkunderaren eragina nabarmena dela oraindik eta, bien bitartean, joan den urtean erregistratutako batez besteko prezioa, segmentu honetakoa ere bai, nabarmenki murriztu dela.
- ρ Hiru hileko hazkunderari erreparatuz, 2007an lortutako hiru hileko tasak pixkanaka murriztu direla ikus daiteke, hortaz, 2008ko lehen hiruhilekoan segmentu honetan % 0,6ko aldaketa-tasa erregistratu da.
- ρ Bestalde, eredu-etxebizitzak² erregistratutako batez bestekoa 3.315 €/m² da, hau da, duela urtebete erregistratu zen prezioa baino % 4,7 gehiago. Batez besteko hori oraingoan antzemandako eraikuntza berriko eskaintza libreak erregistratutako batez besteko prezioa baino % 20 baxuagoa da.

² Etxebizitza berria eta sustapen librekoa, eraikin kolektiboan dagoena eta sustatzaileak zuzenean eskaintakoa; akabera-maila "normalekoa" eta 60-90 m² arteko azalera duena.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

ρ Segmentu babestuari dagokionez, 1.335 €/m² da batez bestekoa eta iazko aldi berdinean erregistratutako batez bestekoarekiko % 3,2ko gorakada egon da.


2.1. taula EAEn salgai jarritako etxebizitzaren m² erabilgarriaren prezioaren bilakaera

€/m ²	ETXEBIZITZA LIBREA				ETXEBIZITZA BABBESTUA *	
	LIBREA GUZTIRA (*)	ERABILIA	BERRIA	EREDU ETXEBIZITZA	BO	Soziala
1994Batez best.	1.308,7	1.331,2	1.268,1	1.111,9	644,6	
1995Batez best.	1.388,3	1.350,8	1.493,5	1.256,1	701,7	
1996Batez best.	1.422,9	1.398,9	1.502,5	1.236,6	695,7	
1997Batez best.	1.421,4	1.404,9	1.478,5	1.160,0	700,2	
1998Batez best.	1.459,0	1.451,4	1.490,5	1.239,6	637,1	
1999Batez best.	1.774,5	1.879,7	1.568,6	1.424,4	700,2	
2000Batez best.	2.168,2	2.339,4	1.839,1	1.561,1	901,8	550,0
2001Batez best.	2.360,5	2.408,4	2.219,7	2.155,6	922,8	520,5
2002Batez best.	2.530,6	2.594,5	2.345,6	2.242,8	1.007,8	521,3
2003Batez best.	3.060,1	3.338,4	2.510,0	2.419,7	1.047,4	597,1
2004Batez best.	3.327,1	3.596,4	2.905,2	2.785,7	1.129,0	670,3
2005Batez best.	3.715,0	3.935,5	3.369,0	2.960,2	1.245,8	756,5
2006Batez best.	4.046,9	4.272,8	3.646,3	3.153,6	1.285,1	
2007 I	4.119,3	4.316,2	3.749,8	3.166,7	1.293,0	
2007 II	4.196,4	4.336,8	3.913,2	3.166,1	1.299,1	
2007 III	4.266,0	4.363,5	4.034,6	3.176,3	1.311,1	
2007 IV	4.286,0	4.356,4	4.113,2	3.221,4	1.322,9	
2008 I	4.300,3	4.361,9	4.139,2	3.315,7	1.334,7	

(*) Etxebizitza libre berri eta erabilien batez besteko prezioa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa

2.1. grafikoa Etxebizitzaren m²-aren prezioen bilakaera motaren arabera




Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa




Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

2.2. grafikoa m² erabilgarriaren arabera prezioak eta urteko aldaketa-tasak etxebizitza-motaren arabera



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiru-hilekoa

2.3. grafikoa Etxebizitza m²-ko prezioen aldaketa-tasen bilakaera motaren arabera



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiru-hilekoa

b) Indizearen kopuruak

ρ EAEko eskaintza osoa (libreak eta babestuak) hartzen dituen prezioen indize orokorra 288 puntukoa da 2008ko lehen hiru-hilekoan (oinarria 1994=100),



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

hau da, urteko hazkundea % 9,5ekoa izan da, antzemandako laginean etxebizitza libreek pisu handiagoa izan baitute (bigarren eskuko etxebizitzaren stocka hazi izanagatik).

- ρ Oinarri berari so eginez eta etxebizitza librea (berriak nahiz bigarren esku-koak) hartuta, indizea 328 puntukoa da (+% 4,4); etxebizitza babestuetan, berriz, 207 puntukoa.
- ρ Etxebizitza berrien merkatua (libreak nahiz babestuak) soilik aztertuz gero, hau da, bigarren eskuko etxebizitzak alde batera utzita, indizea 239 puntukoa da (+% 9,8 urtean).

2.2. taula EAEn salgai dauden etxebizitzaren m² erabilgarriaren prezioaren bilakaera-indizeak.

	INDIZEA					
	Orokorra*	Etxebizitza Librea**	Etxebizitza berria***			Etxebizitza erabilia
			Guztira	Librea	Babestua	
1994Batez best.	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
1995Batez best.	106,4	105,9	113,9	117,8	108,9	101,5
1996Batez best.	108,9	108,5	112,2	118,5	107,9	105,1
1997Batez best.	111,2	108,4	118,1	116,6	108,6	105,5
1998Batez best.	109,4	111,4	106,0	117,5	98,8	109,0
1999Batez best.	123,1	135,3	106,1	123,7	108,6	141,2
2000Batez best.	150,8	165,1	125,3	145,0	116,3	175,7
2001Batez best.	165,7	180,1	138,3	175,0	126,4	180,9
2002Batez best.	177,3	193,1	147,4	185,0	139,3	194,9
2003Batez best.	204,6	234,4	156,5	197,9	149,8	250,8
2004Batez best.	218,7	253,8	183,6	229,1	168,3	270,2
2005Batez best.	247,7	283,4	215,3	265,7	193,3	295,6
2006Batez best.	257,0	308,7	212,5	287,5	199,4	321,0
2007 I	262,7	314,2	217,4	295,7	200,6	324,2
2007 II	273,9	320,1	229,6	308,6	201,5	325,8
2007 III	283,8	325,4	237,9	318,2	203,5	328,1
2007 IV	286,8	326,9	240,2	324,4	205,2	327,2
2008 I	287,6	328,0	238,6	326,2	207,1	327,7

(*) Eskainitako etxebizitza guztiak.

(**) Etxebizitza libre berria eta erabilia


(***) Etxebizitza berri librea eta babestua.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

2.4. grafikoa EAEko etxebizitzaren prezioen indizeen bilakaera



(*) Eskaintako etxebizitza guztiak; (**) Etxebizitza libre berria eta erabilia; (***) Etxebizitza berri librea eta babestua

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa

c) Etxebizitzaren prezioak

- ρ Etxebizitzek izandako prezioei erreparaturaz, eta etxebizitza libreari soilik eginez, ezin daiteke desberdintasun handirik nabarmendu aztertutako bi segmentuen artean. 2008ko lehen hiruhilekoan bigarren eskuko etxebizitzaren segmentuan 346.000 €/etxebizitza da batez bestekoa eta etxebizitza berrien segmentuan zerbait altuagoa (350.000 €/etxebizitza).
- ρ Merkatu babestuari dagokionez, eskaintzan antzemandakoo etxebizitzaren batez besteko prezioa 106.000 €/etxebizitza da 2008ko lehen hiruhilekoan.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

2.3. taula EAEn salgai jarritako etxebizitzaren prezioaren bilakaera.

		<i>SALGAI JARRITAKO ETXEBIZITZAK (milaka €/etxebizitza)</i>			
		<i>ETXEBIZITZA BERRIA</i>		<i>ERABILIAK</i>	<i>ETXEBIZITZA LIBREA GUZTIRA (*)</i>
		<i>BO/SOZIALAK</i>	<i>LIBREAK</i>		
1994	<i>Batez best.</i>	49,9	120,2	111,2	116,0
1995	<i>Batez best.</i>	48,7	136,4	126,2	129,2
1996	<i>Batez best.</i>	51,1	134,6	123,8	126,2
1997	<i>Batez best.</i>	52,3	125,6	127,4	126,8
1998	<i>Batez best.</i>	46,3	125,0	136,4	133,4
1999	<i>Batez best.</i>	54,1	142,4	164,1	156,9
2000	<i>Batez best.</i>	55,9	161,1	200,1	186,3
2001	<i>Batez best.</i>	60,7	194,9	203,1	201,2
2002	<i>Batez best.</i>	66,5	204,4	219,0	215,3
2003	<i>Batez best.</i>	73,4	217,5	286,8	263,5
2004	<i>Batez best.</i>	83,0	254,2	311,4	289,1
2005	<i>Batez best.</i>	95,0	286,1	339,3	318,6
2006	<i>Batez best.</i>	100,5	311,9	358,8	341,9
2007	<i>I</i>	101,2	320,2	359,7	346,0
2007	<i>II</i>	101,7	335,2	360,7	352,3
2007	<i>III</i>	102,8	340,7	356,5	351,7
2007	<i>IV</i>	104,2	349,3	350,7	350,3
2008	<i>I</i>	105,7	350,1	346,4	347,4

(*) *Etxebizitza libre berri eta erabilien batez besteko prezioa.*

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa

2.1.2. Alokatzeko etxebizitzak

- ρ EAE bere osotasunean hartuta, 919 eurokoa izan da 2008ko lehen hiruhilekoan higiezinaren jabetzako agenteen bitartez alokairuan eskaini diren jabetza partikularreko etxebizitza librean hileko batez besteko errenta.
- ρ Azken urtean antzemandako joerari dagokionez, salgai jarritako mota bereko etxebizitzek erakutsitako bilakaeraren kontrakoa izan dela aipatu behar da. 2007an alokairuko etxebizitzaren merkatuan erregistratutako tasek etengabe egin dute gora. Zehazkiago esateko, azken hiruhilekoan lortutako urteko aldaketa tasa % 11,5ekoa den bitartean, joan den hiruhilekoan % 8,6koa zen eta % 2,6koa, berriz, duela urtebete.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

2.4. taula EAEn alokairuan eskainitako etxebizitzaren errentaren bilakaera.

		ALOKATZEKO ETXEBIZITZA (€/hilean)			
		MERKATU BABESTUA			MERKATU LIBREA
		Babes ofiziala	SOZIALAK	GUZTIRA	
1994	Batez best.	--	--	--	583,0
1995	Batez best.	--	--	--	534,9
1996	Batez best.	--	--	--	528,9
1997	Batez best.	--	--	--	528,9
1998	Batez best.	--	--	144,0	528,9
1999	Batez best.	--	--	154,5	565,0
2000	Batez best.	229,5	169,5	184,5	595,0
2001	Batez best.	265,8	177,8	187,3	634,0
2002	Batez best.	295,0	154,1	202,8	689,7
2003	Batez best.	345,1	141,1	276,5	693,1
2004	Batez best.	385,4	164,4	257,3	724,4
2005	Batez best.	397,5	147,6	278,2	807,4
2006	Batez best.	384,9	141,0	263,2	819,6
2007	I	363,6	140,3	238,5	824,5
2007	II	344,4	140,0	214,7	838,9
2007	III	322,9	137,6	193,4	867,4
2007	IV	325,3	131,7	194,1	890,2
2008	I	341,6	128,0	205,4	918,9

(*) Etxebizitza libre berri eta erabilien batez besteko prezioa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa

2.2. ETXEBIZITZA KOPURUA

- ρ 2008ko lehen hiruhilekoan higiezinaren eragilearen artean egindako inkestan eskaintzan antzemandako **etxebizitza bolumena**, Prezioen Estatistika lantzeko oinarrian hartu dena, 24.604 unitatek osatzen dute. Lagin horretan % 51 bigarren eskuko etxebizitzak dira (bereziki salgai jarritakoak -% 96-, eta % 4 alokairuan), % 19 etxebizitza berri libreak, eta % 30 erregimen babestuko etxebizitzak.
- ρ Eraikuntza berriko etxebizitza libreak lurraldekako banaketa hau dute: Bizkaiak eskaintzaren % 51 bildu du, Gipuzkoak % 29 eta Arabak gainerako % 20.
- ρ Antzemandako bigarren eskuko etxebizitzaren kasuan bolumen osoa 12.574 unitatek osatzen dute, gehienak (% 96, hau da, 12.098 etxebizitza) salgai eskainitakoak dira; alokairukoak askoz ere gutxiago dira, 476 etxebizitza. Salgai jarritako bigarren eskuko etxebizitzek lurraldekako banaketa hau dute: Bizkaiak hartzen du eskaintzaren % 57, Arabak % 28 eta Gipuzkoak gainerako % 15.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- p Bestalde, segmentu babestuan, 2008ko lehen hiruhilekoan 7.406 etxebizitza antzeman dira eskaintzan: % 76 salgai jarritakoak eta % 24 alokairuan. Babes-modalitateari dagokionez, % 85 babes ofizialeko etxebizitzak dira, eta eskaintza babestuaren % 15 etxebizitza sozialak dira.

2.5. taula EAEn eskaintako etxebizitzen bilakaera

	ETXEBIZITZA LIBREA			ETXEBIZITZA BABESTUA				
	SALGAI		ALO-KAT-ZEKO	SALGAI *			ALOKAT ZEKO	GUZTIRA
	ERABI-LIA	BERRIA		BO	Soziala	Guztira		
1994Batez best.	7.029	3.331	1.023	1.133	258	1.391	5	1.396
1995Batez best.	7.646	2.718	986	1.105	212	1.317	--	1.317
1996Batez best.	11.071	3.305	1.147	1.501	315	1.816	4	1.820
1997Batez best.	10.572	3.032	1.290	816	219	1.035	267	1.302
1998Batez best.	7.142	2.248	1.367	767	726	1.493	48	1.541
1999Batez best.	4.589	2.363	985	1.332	865	2.197	125	2.322
2000Batez best.	5.836	3.136	662	1.456	1.021	2.477	353	2.830
2001Batez best.	8.532	2.819	409	2.166	793	2.959	421	3.380
2002Batez best.	7.880	2.672	428	2.192	655	2.847	552	3.399
2003Batez best.	6.301	3.188	533	2.914	626	3.540	469	4.009
2004Batez best.	6.110	3.900	512	3.584	347	3.932	500	4.432
2005Batez best.	6.524	4.159	521	3.849	70	3.919	1.015	4.934
2006Batez best.	6.936	3.912	578	5.065	0	5.065	1.555	6.620
2007 I	7.231	3.853	552	5.034			1.613	6.647
2007 II	8.147	4.037	489	4.822			1.635	6.457
2007 III	9.353	4.125	452	4.729			1.480	6.209
2007 IV	10.630	4.329	485	5.093			1.513	6.606
2008 I	12.098	4.624	476	5.606			1.800	7.406


*2006tik aurrera ez da barne hartzen salgai jarritako etxebizitza sozialen eskaintza.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa




Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

2.5. grafikoa Prezioen estatistika egiteko oinarritzat erabili den etxebizitzaren laginaren banaketa.



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa

2.6. grafikoa Eskaintako etxebizitza-kopurua motaren arabera eta aurreko urtearekiko aldaketa-tasak




Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

2.7. grafikoa Eskaintako etxebizitza-kopuruaren bilakaera motaren arabera



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa

3. SALGAI JARRITAKO ETXEBIZITZEN ES- KAINZA



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3. SALGAI JARRITAKO ETXEBIZITZEN ESKAINNTZA

3.1. SALGAI JARRITAKO ETXEBIZITZA BERRIAK

3.1.1. Salgai jarritako etxebizitza berriak prezioen arabera

- ρ EAEko bigarren eskuko merkatuko batez besteko prezioa 4.139 €/m² da 2008ko lehen hiruhilekoan, hau da, urte batean % 10,4ko hazkundera egon da. Hazkundera lortu bada ere, hiru hileko tasa aztertzean (+% 0,6) eta azken hiruhilekoetan bilakaera aztertzean, badirudi eraikuntza berriko etxebizitzen batez besteko prezioa egonkor dagoela.
- ρ Bizkaian eta Gipuzkoan erregistratutako batez bestekoak Arabakoa baino zerbait altuagoak dira; 4.443 €/m² eta 4.250 €/m² Bizkaian eta Gipuzkoan hurrenez hurren, eta 3.149 €/m² Araban.
- ρ Bilakaerari erreparatuz, lurraldeen arabera joera oso desberdinak ikus daitezke. Horrela, Araban antzemandako etxebizitzen batez besteko prezioa uzurtu egin da (-% 13); Gipuzkoan eta Bizkaian, ordea, hazkunde nabarmenak ezagutu dituzte batez besteko prezioan. Hain zuzen ere, urteko aldaketa-tasak % 13 eta % 17 izan dira hurrenez hurren.
- ρ Bestalde, hiru lurralde historikoetan erregistratu diren hiru hileko tasak aurreko hiruhilekoetan antzemandakoak baino dezente baxuagoak dira, hortaz, EAE osoan antzemandako joera hiru lurralde historikoetara zabaldu dela esan daiteke.
- ρ Etxebizitzako batez besteko prezioei so eginez, EAEko batez bestekoa 305.000 €/etxebizitza da. Etxebizitzaren prezioei dagokienez, preziorik altuena Bizkaiko batez bestekoa da (374.000 €/etxebizitza) eta ondoren Gipuzkoakoa (358.000 €/etxebizitza). Arabako batez besteko prezioa askoz ere baxuagoa da (271.000 €/etxebizitza).



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.1. taula Salgai dauden etxebizitza berri libreen m² erabilgarriaren eta prezioaren bilakaera lurralde historikoka

	Prezioa/m ²		Prezioa/etxebizitza	
	Eurotan	± % (*)	Mila eurotan	± % (*)
Araba	3.148,5	-13,0	270,5	-15,3
Gipuzkoa.....	4.249,9	13,1	357,6	12,8
Bizkaia.....	4.443,4	16,9	374,3	12,3
EAE.....	4.139,2	10,4	350,1	8,1

(*): Prezioen aldaketa aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa

- ρ Etxebizitza babestuaren merkatuari dagokionez, salgai jarritako etxebizitzaren batez bestekoa 1.335 €/m² da (+% 3,2 07-I aldiarekiko). Lurralde historikoka, ez da desberdintasun interesgarriarik ikusten.
- ρ Etxebizitza babestuaren batez besteko prezioa 106.000 € da 2008ko lehen hiruhilekoan (+% 4,4 07-I aldiarekiko).

3.2. taula Salgai dauden etxebizitza berri libreen m² erabilgarriaren eta prezioaren bilakaera lurralde historikoka

	Prezioa/m ²		Prezioa/etxebizitza	
	Eurotan	± % (*)	Eurotan	± % (*)
Araba	1.330,2	3,1	111,7	5,5
Gipuzkoa.....	1.328,1	4,4	93,8	1,3
Bizkaia.....	1.350,2	3,7	101,9	4,4
EAE.....	1.334,7	3,2	105,7	4,4

(*): Iazko hiruhileko berdinarekiko aldaketa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa

- ρ Bestalde, 2008ko lehen hiruhilekoan antzemandako udal-etxebizitza tasatuen batez besteko prezioa 1.974 €/m² da, eta etxebizitzaren batez besteko prezioa 146.000 €. Mota horretako etxebizitza babestuei dagokienez, azken hiruhilekoan antzemandako bolumenak izandako hazkunde handia azpimarratu behar da.
- ρ Eskaintza Inmobiliarioaren Estatistikan aurretik ere aztertu izan dira mota horretako etxebizitzak baina, orain arte, mota horretako etxebizitzaren bolumena oso txikia izan da. Zentzu horretan, ezin da ahaztu 2008ko lehen hiruhilekoan 332 unitate gehiago barne hartu direla eskaintako bolumenean.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila


3.3. taula EAEn salgai antzemandako etxebizitza babestu tasatuen m² erabilgarriaren prezioa

	2007ko 4. hiruhilekoa			2008ko 1. hiruhilekoa		
	Pre-zioa/m ² (€/m ²)	Pre-zioa/etxebizitza (milaka €)	Kopurua	Pre-zioa/m ²	Pre-zioa/etxebizitza (milaka €)	Kopurua
BOE Tasatuak	--	--	--	--	--	--
Udal-etxeb. tasatuak	1.912	159,8	79	1.974	146,1	332
EAE guztira* (Gipuzkoa)	1.912	159,8	79	1.974	146,1	332

(*): Antzemandako etxebizitza guztiak Gipuzkoakoak dira.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa

3.1. grafikoa Etxebizitza berri libreen m²-aren prezioa lurralde historikoka




Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila


3.2. grafikoa Etxebizitza babestuen m²-aren prezioa lurralde historikoka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiru-hilekoa

ρ **Eredu-etxebizitzari** dagokionez, 2008ko lehen hiruhilekoan 3.315 €/m² da batez bestekoa, hau da, urte bete lehenagoko prezioen aldean % 4,7ko hazkundea izan du. Batez besteko hori 2008ko lehen hiruhilekoan EAEn antzemandako eraikuntza berriko etxebizitzaren eskaintzarena baino % 20 baxua da.

3.3. grafikoa Salgai dauden etxebizitza berri libreen eta eredu-etxebizitzen m²-aren prezioaren bilakaera



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiru-hilekoa



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- ρ Azterketa sakonago bat eginez, etxebizitzaren azken prezioa eragiten duten hainbat faktore ikus daitezke: Esanak esan, akabera-mailak gora egin ahala batez besteko prezioak ere gora egiten duela baieztatu daiteke. Hala, akabera normaleko etxebizitzaren batez besteko prezioa 3.409 €/m² da, akabera altukoena 4.172 €/m² eta luxuzko etxebizitzena 5.000 €/m². Bilakaerari dagokionez, akabera altuagoko etxebizitzaren prezioek gorakada nabarmenagoak izan ditzutela ikus daiteke. Esanak esan, akabera normaleko etxebizitzaren urteko aldaketa-tasa % 3koa da; % 10ekoa akabera altukoena eta urteko % 12,6koa luxuzko etxebizitzena.

3.4. taula Etxebizitza berri libreen m² erabilgarriaren prezioa ezaugarrien arabera

	Euro/ m ²
ERAIKUNTZA MOTA	
Familiab/Bifam.....	3.138
Kolektiboa	4.161
AKABERA	
Luxuzkoa.....	5.000
Altua.....	4.172
Normala	3.409
AZALERA ERABILGARRIA	
< 60 m ²	4.735
61-75 m ²	4.531
76-90 m ²	3.908
91-120 m ²	3.987
> 120 m ²	3.423
EREDU ETXEBIZITZA	3.316

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta. 2008ko 1. hiruhilekoa

3.5. taula Etxebizitza berri libreen m²-aren prezioen bilakaera akabera-mailaren arabera

Akabera-maila	EAEko etxebizitzak guztira			
	Banaketa 2007-I	Banaketa 2008-I	Prezioa (€/m ²)	Urteko aldaketa- tasa (%)
Luxuzkoa	9,8	14,3	5.000	12,6
Altua	38,3	49,6	4.172	9,9
Normala	51,9	36,1	3.409	2,9
Guztira	100,0	100,0	4.139	10,4

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

- ρ Etxebizitzaren tamainari dagokionez, etxebizitzaren **azalera erabilgarriaren** eta prezioa/m² adierazlearen arteko erlazioa azpimarratu behar da. Etxebizitza txikienean, hau da, 60 m²-tik beherako azalera erabilgarria dutenek, erregis-



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

tratu duten batez besteko prezioa 4.735 €/m² da; eta etxebizitza handienena, hau da 120 m²-tik gorakoa, 3.423 €/m² da.

- ρ Salgai jarri diren etxebizitza berri libreen banaketari erreparatuz, eta prezio-tarte zabalak kontuan hartuta, argi dago geroz eta prezio altuagoetako segmentuetarantz egiten duela eskaintzak (ikus **3.4 grafikoa**), eta grafikoak gaur egun duen asimetria behatutako prezioen dispersioaren ondorio da.
- ρ Zentzu horretan, azpimarratzekoa da 2008ko lehen hiruhilekoan antzemandako eskaintzaren % 6k bakarrik duela 180.000 eurotik beherako prezioa. Kontrako muturrean, ordea, eskaintako etxebizitzaren % 29k 420.000 eurotik gorako prezioa dutela baieztatu da.
- ρ Sektore babestuari dagokionez, salgai antzemandako etxebizitza askok (% 68) 90.000-120.000 euro arteko prezioa dute. Bestalde, % 15en kasuan prezio baxuagoak erregistratu dira eta % 17 izan dira 120.000€/etxebizitza gainditu dutenak.

3.6. taula Salgai dauden etxebizitza berrien banaketa prezio-tarteen arabera


	BABESTUAK	LIBREAK
60.000 € baino gutxiago	0,4	0,0
60.000-90.000 €	15,0	0,2
90.001-120.000 €	67,5	0,5
120.001-150.000 €	17,0	0,7
150.001-180.000 €	0,1	4,3
180.001-240.000 €	0,0	11,7
240.001-300.000 €	0,0	17,3
300.001-360.000 €	0,0	18,0
360.001-420.000 €	0,0	18,3
420.001-480.000 €	0,0	7,2
480.001-540.000 €	0,0	8,0
540.001-600.000 €	0,0	6,4
600.000 € baino gehiago	0,0	7,3
GUZTIRA	100,0	100,0

Iturria EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila


3.4. grafikoa EAEko etxebizitza berri libreen banaketa prezio-tarteen arabera



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

ρ Lurraldeka aztertuz gero, Bizkaian dago prezio altueneko etxebizitzaren proportzio handiena, etxebizitzaren % 31k gainditzen baitu 420.000 euroko prezioa. Gipuzkoan % 27 da proportzio hori eta Araban % 15. Beste muturrean dago Araba, 180.000 €/etxebizitza preziora iristen ez diren etxebizitzaren portzentaje dezentea duen bakarra baita: eskaintza osoaren % 23.

3.5. grafikoa Etxebizitza berri libreen banaketa prezio-tarteen arabera eta lurraldeka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.1.2. Salgai dauden etxebizitza berrien kuantifikazioa eta ezaugarriak³

- ρ 2008ko lehen hiruhilekoan eskaintzan antzemandako eraikuntza berriko etxebizitza libreen bolumena 4.625 unitatek osatzen dute. Lurraldeka, Bizkaiak bereganatu du eskaintzaren erdia (% 51), Gipuzkoak % 29 eta Arabak gainerako % 20.
- ρ Salgai jarritako etxebizitza babestuaren eskaintzari dagokionez, 5.606 etxebizitza antzeman dira, eta Araba da etxebizitza gehien lortu dituen lurraldea (guztizkoaren % 55). Bizkaiak bereganatu du eskaintzaren % 27 eta gainerako % 18 Gipuzkoak.
- ρ Bilakaerari erreparatuz esan daiteke Bizkaian pixkanaka areagotzen joan dela eskaintza librea eta, aldi berean, eskaintza babestua nabarmenki murriztu dela.
- ρ Merkatu babestuari erreparatuz, Gipuzkoako eskaintza pixkanaka zabaldu dela ikus daiteke eta, oraindik ere eskaintza babestu metatu baxuena duen lurraldea izanik, 2008ko lehen hiruhilekoan erregistratutako bolumenak nabarmenki gainditu du duela urtebete erregistratutakoa.

3.7. taula Salgai dauden etxebizitza berriak lurralde historikoka

	LIBREAK	BABESTUAK (BOE)	GUZTIRA
Araba	928	3.069	3.997
Gipuzkoa.....	1.340	1.039	2.379
Bizkaia.....	2.357	1.498	3.855
EAE	4.625	5.606	10.231


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

³ Adierazitako datuek prezioen estatistika lantzeko erreferentzia izan den hiruhilekoan jasotako etxebizitzaren laginaren ezaugarriak erakusten dituzte.




Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.6. grafikoa Eskainitako etxebizitza libreen kopuruaren bilakaera lurralde historikoka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

3.7. grafikoa Eskainitako babes ofizialeko etxebizitza kopuruaren bilakaera lurralde historikoka




Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.8. grafikoa Eskaintza babestuaren banaketa lurralde historikoka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

- ρ Eraikuntza berriko etxebizitza librearen eskaintzak dituen ezaugarrietan sakonduz, ugariagoak dira etxebizitza kolektiboak (% 82), eta ugariak dira, halaber, eraikuntza-fasean dauden etxebizitzak (% 77).
- ρ Eskaintako etxebizitzaren azalera erabilgarriari dagokionez, azpimarratzekoa da ugaritsuagoak direla 76-90 metro koadro arteko azalera dutenak, hain zuzen ere guttizkoaren % 34; apartamentuak oraindik oso gutxi dira eskaintako laginean. Horrela, eskaintza guztiaren % 8 bakarrik dute 60 metro koadrotik beherako tamaina.
- ρ Akabera-mailari dagokionez, higiezinaren sustatzaileek normaltzat jotzen duten akabera-maila geroz eta gutxiago ageri da eskaintzan. Eta hala, 2008ko lehen hiruhilekoan eskaintzan antzemandako etxebizitzaren % 36 soilik ziren mota honetakoak. Akabera-maila altukoak, berriz, % 50 ziren eta luxuzko etxebizitzak % 14.
- ρ Hala ere, lurralde historikoka desberdintasun interesgarriak ikus daitezke. Azpimarratzekoa da, adibidez, Araban kokatutako eraikuntza berriko etxebizitza librearen % 78 akabera normalekoak direla; proportzio hori % 28koa da Gipuzkoan eta % 25koa, berriz, Bizkaian.
- ρ Batez besteko azalerari dagokionez, eskaintako etxebizitza libre berriena 85 m² da, eta etxebizitza babestuenaren apur bat txikiagoa: 79 m².



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila


3.8. taula Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak

	BO/SOZIALAK (%)	ETXEBIZITZA LIBREAK (%)			
		EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
TIPOLOGIA*					
Familiab/Bifam.....	0,0	18,0	24,7	13,8	17,8
Kolektiboa.....	100,0	82,0	75,3	86,2	82,2
AZALERA ERABILGARRIA					
< 60 m ²	11,0	8,3	5,8	10,5	8,1
61-75 m ²	26,5	17,2	13,2	19,0	17,7
76-90 m ²	62,3	34,2	29,3	40,8	32,3
91-120 m ²	0,0	23,6	28,6	17,4	25,2
> 120 m ²	0,0	16,7	23,0	12,2	16,8
ERAIKUNTZA FASEA*					
Amaitutakoak.....	7,7	14,0	19,0	15,4	11,3
Obran.....	57,4	76,8	64,2	82,0	78,6
Projektuan.....	35,0	9,1	16,8	2,6	10,1
AKABERA					
Luxuzkoa.....	0,0	14,3	1,8	4,0	25,3
Altua.....	0,0	49,6	20,6	67,7	50,2
Normala.....	100,0	36,1	77,6	28,3	24,6

(*): Ez da barne hartzen agentzia inmobiliarioetan merkaturatutako sustapenetako etxebizitzetzi buruzko informaziorik.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

3.9. grafikoa Salgai dauden etxebizitza berri libreen ezaugarriak




Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.10. grafikoa Salgai dauden etxebizitza berri libreen azaleraren bilakaera



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

3.1.3. Etxebizitzak eskaini dituzten sustapenen ezaugarri orokorrak⁴

- ρ 2008ko lehen hiruhilekoan higiezinaren sustatzaileen artean egindako inkestaren arabera, 345 sustapen eskaini dira; eta horietatik 73 hiruhileko honetan lehen aldiz antzemandako sustapenak dira.
- ρ Sustapen guztiak kontuan hartuta, 225 libreak dira eta 120 babes-erregimen bateko sustapenak dira. Sustapen librekoak guztira 9.564 etxebizitza izan dira, eta babestukoak 7.661 etxebizitza.
- ρ Azken hiruhilekoan soilik antzemandako sustapenei dagokienez, % 56 sustapen librekoak dira (41 sustapen) eta % 44 babestuak (32 sustapen). Dena den, etxebizitzari dagokienez segmentu babestukoak nagusi dira: % 62 babestuak (2.253 etxebizitza) eta % 38 libreak (1.381 etxebizitza).
- ρ Erregimen libreko sustapenei dagokienez, antzemandako sustapenek orotara barne hartu dituzten etxebizitzen % 43 (4.130 etxebizitza) salgai daude. Antzekoa izan zen iaz erregistratutako proportzioa (% 45).

⁴ Gainerakoetan ez bezala, atal honetan sustatzaileen artean egindako inkestako informazioa bakarrik aztertu da eta sustapena hartu da erreferentziazko oinarritzko unitate gisa.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.9. taula Sustatzaileek zuzenean eskainitako etxebizitzaren sustapenaren ezaugarri orokorrak

	GUZTIRA HIRUHILEKOA	SUSTAPEN BERRIAK
<i>Sustapen kop.</i>	345	73
<i>Libreak</i>	225	41
<i>BO/Sozialak</i>	120	32
<i>Sustapenetan barne hartutako etxeb. kop.</i>	17.225	3.634
<i>Libreak</i>	9.564	1.381
<i>BO/Sozialak</i>	7.661	2.253

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

3.10. taula Erregimen libreko sustapenetan barne hartutako etxebizitzaren bilakaera*

	GUZTIRA ETXEBIZITZA KOP.	SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZAK	SALGAI DAUDEN ETXEB. % /GUZTIZKOAREKIKO
1994 Batez best.	3.199	1.612	50,3
1995 Batez best.	4.573	1.734	38,0
1996 Batez best.	6.527	2.321	35,5
1997 Batez best.	6.679	2.393	35,8
1998 Batez best.	4.813	1.911	39,7
1999 Batez best.	4.653	2.188	46,9
2000 Batez best.	5.330	2.499	46,9
2001 Batez best.	5.712	2.387	41,8
2002 Batez best.	5.224	2.374	45,4
2003 Batez best.	7.012	2.912	41,5
2004 Batez best...			
<i>taula</i>	7.755	3.701	47,7
2005 Batez best.	7.684	3.757	48,9
2006 Batez best.	7.924	3.584	45,2
2007 I	8.006	3.527	44,1
2007 II	8.257	3.630	44,0
2007 III	8.650	3.704	42,8
2007 IV	9.089	3.852	42,4
2008 I	9.564	4.130	43,2


(*): Sustatzaileek zuzenean eskainitakoak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.11. grafikoa Sustapen libreetan barne hartutako etxebizitza kopuruaren eta salgai dauden etxebizitza libreen kopuruaren bilakaera*



(*): Sustatzaileek zuzenean eskainitako sustapenak bakarrik hartu dira kontuan, hortaz, kanpoan utzi dira HJAek merkaturatutakoak.

3.2. SALGAI DAUDEN BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZAK

3.2.1. Salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzaren prezioak⁵

- ρ Higiezinaren jabetzako agenteek EAEn salgai eskainitako partikularren bigarren eskuko merkatuko batez besteko prezioa 4.362 €/m² da 2008ko lehen hiruhilekoan.
- ρ Laginaren bilakaerari erreparaturik, agerikoa da mota honetako etxebizitzaren prezioei eustea lortu dela. Hain zuzen ere, urteko aldaketa-tasa % 1,1ekoa izan da azken hiruhilekoan, hau da, azken urtean prezioa ez da ia aldatu.
- ρ Bestalde, azpimarratu beharra dago prezio horiek eskatzaileak jarritakoak direla, eta salerosketa gertatzen denean murrizketa bat izaten dutela. Murrizketa hori areagotu egin da azken hiruhilekoetan eta % 9 inguruko portzentajeak erregistratu dira. Joan den urtean % 3ko portzentajeak erregistratu ziren.

⁵ Gogoan hartu bere etxebizitza higiezinaren agentzia baten bitartez saldu nahi duen eskatzaileak eskatutako prezioak direla; hortaz: 1) eskatzen diren prezioak, normalean, alde negoziatzaileek adosten duten prezioa baino altuagoak izaten dira eta 2) ez dira azterketan barne hartu bitartekari gabe saldutako etxebizitzak.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Antzemandako moteltzeari dagokionez, azpimarratzekoa da lurralde historiko guztietan izan dela uzkurdura. Horrela, Araban eta Gipuzkoan uzkurtu egin da oraingoan erregistratutako batez besteko perzioa (-% 0,2 eta -% 0,8 hurrenez hurren). Bizkaiko urteko aldaketa-tasa % 2,6koa izan da.
- Etxebizitzek izandako prezioak aztertzen badira, hiru lurralde historikoetan batez besteko prezio uzkurtu dela ikus daiteke. Etxebizitzako batez besteko prezioei so eginez, EAEko batez bestekoa 346.000 €/etxebizitza da (-% 3,7 07-I aldiareiko).
- Gipuzkoan eskainitako etxebizitzen batez besteko prezioa 398.000 €/etxebizitza da (-% 1,4), 354.000 €/etxebizitza Bizkaian (-% 4,9) eta 305.000 €/etxebizitza Araban (-% 3,4 07-I aldiarekiko).


3.11. taula Salgai dauden etxebizitza erabilien m²-aren prezioak eta etxebizitzaren prezioak lurralde historikoka

	PREZIOA/ m ² erabilgarria		PREZIOA/ETXEBIZITZA	
	Euro/m ²	± % (*)	Mila eurotan	± % (*)
Araba	3.799,7	-2,1	305,5	-3,4
Gipuzkoa.....	4.773,9	-0,8	398,3	-1,4
Bizkaia.....	4.534,8	2,6	353,9	-4,9
EAE.....	4.361,9	1,1	346,4	-3,7

(*): Iazko hiruhileko berdinarekiko aldaketa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

3.12. grafikoa Etxebizitza erabilien m²-aren prezioa lurralde historikoka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

- Bigarren eskuko etxebizitzen prezio-tarte handien arabera izan duten banaketari dagokionez, eraikuntza berriko etxebizitza libreena baino simetrikoagoa izan da banaketa. Zehazkiago esateko, etxebizitzen % 74k 180.000-420.000 €



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

arteko prezioak erregistratu ditu, hau da, batez besteko prezioaren parean. Prezio-tarterik altuenetan, eskaintzaren % 6k 600.000 €/etxebizitza prezioa gainditzen duela azpimarratu behar bada ere, pasa den urtean behatutako proportzioa apur bat murriztu da (% 8 zen 07-I aldian).

- Bestalde, prezio-tarterik baxuenetan, eskaini diren etxebizitzan % 2,7k besterik ez du 180.000 €/etxebizitza edo prezio baxuagoa.

3.12. taula Salgai dauden etxebizitza erabilien banaketa prezio-tarteen arabera

PREZIOA	EAE (%)
120.000 € baino gutxiago	0,3
120.001-150.000 €	0,5
150.001-180.000 €	1,9
180.001-240.000 €	17,3
240.001-300.000 €	25,6
300.001-360.000 €	18,2
360.001-420.000 €	12,8
420.001-480.000 €	7,9
480.001-540.000 €	5,4
540.001-600.000 €	3,9
600.000 € baino gehiago	6,2
GUZTIRA	100,0


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

- Lurraldeka aztertuz gero, Gipuzkoan dago prezio altueneko etxebizitzaren proportzio handiena, etxebizitzaren % 12,6k gainditzen baitu 600.000 euroko prezioa. Bizkaian % 6 da proportzio hori eta Araban % 3.




Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.13. grafikoa EAEn salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzaren banaketa, prezio-tarteen arabera



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

3.14. grafikoa Etxebizitza erabilien banaketa prezio-tarteen arabera, lurraldeka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.2.2. Kuantifikazioa eta ezaugarriak⁶

- ρ 2008ko lehen hiruhilekoan higiezinaren eragilearen artean egindako inkestan eskaintzan antzemandako etxebizitza bolumena, Prezioen Estatistika lantzeko oinarrian hartu dena, 12.098 unitatek osatzen dute. Honako hau da etxebizitza horiek lurraldeka izan duten banaketa: Bizkaiak eskaintzaren % 57 bildu du, Gipuzkoak % 15 eta Arabak gainerako % 28.
- ρ Erregistratutako bolumenari erreparatuta, azpimarratu behar da estatistika-datuak izanik ere eskaintzen diren bigarren eskuko etxebizitzaren stockak hazteko joera handia duela. Egoera hori higiezinaren merkatuaren jardura baxuaren eraginez errepikatu ohi da.

3.13. taula Salgai dauden etxebizitza erabiliak lurralde historikoka

	ETXEBIZITZA KOP.
Araba.....	3.430
Gipuzkoa.....	1.780
Bizkaia.....	6.888
EAE.....	12.098

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen eskaintzari buruzko Inkesta 2008ko 1. hiruhilekoa

- ρ Antzemandako etxebizitzak azalera erabilgarriaren arabera aztertzean ikus daitekeenez, etxebizitza berriaren sektorean ugariagoak dira tamaina txikiagoko etxebizitzak. Horrela, 60 m² baino gutxiagoko azalera du EAEn eskaintzako bigarren eskuko etxebizitzaren % 23k. Proporzio hori % 8koa da etxebizitza berrien kasuan.
- ρ Batez besteko neurria 79 m² da EAE osorako, eta ez da alde handirik nabari lurraldeen artean.
- ρ Bestalde, azterketak erakusten duenez, nabarmenki nagusitu da etxebizitza kolektiboa etxebizitza familiabarraren parean: % 97 kolektiboak eta % 3 familiabakarrak.

⁶ Adierazitako datuek prezioen estatistika lantzeko erreferentzia izan den hiruhilekoan jasotako etxebizitzaren laginaren ezaugarriak erakusten dituzte.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.14. taula Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak

	EAE (%)	ARABA (%)	GIPUZKOA (%)	BIZKAIA (%)
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
TIPOLOGIA				
Familiab/Bifam.	2,9	4,5	3,8	1,7
Kolektiboa.....	97,1	95,5	96,2	98,3
AZALERA ERABILGAR- RIA				
